

JE, ARGAZKIAK AFARIAREN ONDOREN ATERA IZAN BAGENITU...



Josu JUARISTI

NOLA DESKRIBATZEN DA IRRIBARREA? IZENA BERA NAHIKOA AL DA? NOLA UMOREA ETA ARGITASUNA? ARTISTA IZAN BEHAR HORRETARAKO, ETA ZER EGINGO DIOGU BADA, KAZETARIAK BESTERIK EZ GARA. BAKOITZAK BERE ALEGITEN NAHIKOA LAN BARDUELA ESANEZ LASAITU BEHARKO DUGU GEURE BURUA, BAINA A ZER INBIDIA EMATEN DUFEN ARTISTEK, E!

Halako asko bildu zuen GARAK larunbat iluntzean Lizeaga sagardotegian. Illunbeko Maletillen afaria zen, GARAK azaroa eta abendua partean proposatutako bertso jokoari amaiera txukuna emateko antolatutako guren

Lizeaga sagardotegian hartutako irudiak.
Denak formal-formal, e!
Zer uste zenuten, bada?
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

eta, agian txukuna hitzik egokiena ez bada ere... ederki pasatu genuen. Bide batez, GARAREN bertso jokoaren eta Egaña, Lujanbio, Silveira eta Paya bertsolarien bueltan bildutako laurogeita hamar lagun inguruk txotx denboraldia inork baino lehenago estreinatze aukera izan zuten (genuen). Eta inor ez zegoen barkatzeko, e!

Etxekoak kenduta, Lizeaga sagardotegiko tunela ere geuk estreinatu genuen, atzera-aurrera, aurrera-atzera, orduren batetik aurrera ez baitzen erraza jakitea soka non hasten zen, eta non bukatzen. Hasi, egia esan, kostata hasi zen. Jende gehiena puntual, formal-formal, jarritako orduan, eta azkenak eman zion argi berdea gauari... irribarre batez, Lujanbioarena.

Eta denak, maletillak eta artista titullarrak, generoan kontzentratuta. Baina, hau ez al zen bertso afaria edo antzeko zerbait?

Afaria bazen, bistan zenez, eta bikaina. Lagunartekoa. Etxeko nagusia batetik bestera, halako batean, kupelen «giltza» Silvei-

rari eman zion arte... Edo beste norbait ote zen? Edo denak? Dios, ederra zioke ba!

Ez dago oso garbi zein hasi zen kantatzen, kupelari itsatsita zirudien maletilla txikia edo Egaña eta Paya. Silveira ere hurbildu zen halako batean, gaizto aurpegiarekin, baina alfer antzean, bukaerak errepikatze gabe.

BEROKETAK

Realaren partidu aurreko minutuak balira bezala (edo Athleticecena, edo Osasunarenak, edo Alavesenak, edo BO-renak, denetik baitzegoen Lizeagan larunbat gauean), beroketa lanetan hasi ziren gure lau zezenak, xuabe-xuabe, tentatzen hasteko edo. Baina maletillak beroak dira, batzuk behinik behin (lotsafil asko gelditu zen isilik... neu barne), eta Spotean bertsoa bukatu ezinik laga zuen maletilla luzeak egin zuen berehala salto plazara. Oinetakoetan ez ginen fijasatu, baina kapotearen faltan aho-zapia zeraman soinean, txuri-urdina, ibilia eta ikasia. Ti-



HARROBI BIKAINA

Egurrian batzuetan, eta nahastuta bestetan, bi argazkiotan ikus daitekeen bezala. Horrelaxe ibili ziren sagardotegian zezenak (Egaña eta Lujanbio ondoko argazkian) eta maletillak, baita epailleak ere. Maletillen matxinadaren I. afaria zen.

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

Gora edo behera egin, zu beti irabazle.

Eurodolar Gordailu berriarekin, kapitala bermatzeaz gain, oso errentagarritasun handia lortuko duzulako: **dolarrak euroarekiko birbalioztapenaren %100, edota, bestela, %50 balio galera gertatuz gero***. Kontrata ezazu **otsailaren 29a baino lehen**.

*Hasierako erreferentzia Europako Banku Zentralaren 2008ko martxoaren 3ko FIXINGaren balioa izango da, eta amaierakoa, berriz, 2010eko otsailaren 26koa. Gordailuaren epemuga, 2010eko martxoaren 3an gauzatuko da.

Eusko Jaurlaritzak baimendutako publikatzea, 07/02/07, epealdira ak. dirua



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

ra, ikasia zela esaten zuten baturuek. Nik ezin esan. Jende artean, behetik ezin, bada, dena ikusi. Baina ausart atera zen mutilla... eta bizkarreko ederrak hartu zituen bueltan (je, lanera iristen denean ere ez du giro izango gaur!). Badakizue, artistak, zirikatuz izan dituztenean ere, beti artista.

Etxe honetako nagusiari ere eskaini zion bere burua Egañak, baina ez zen fidatu: «Eta bukaerara mutu uzten banau?». Gutxienez espero denean, izan ere, lorioa isil-isilik gelditzen baita.

Beste txotx oihu batzuk behar izan ziren beroketa aldia amaitutzat emateko eta ausartzen ziren maletillei kamisetak banatzen hasteko. Neskak animatzen ere saiatu zen Lujanbio, baina mutillak harroxeago ibili ziren. Baina, ez pentsa neska denak mutu geratu zirenik, e! Azpeitiar bat (beste bat! -hau azkoitiarrak dio, umore onez-) jo ta su aritu zen, egurrin! Kastaz etortzen denean horixe gertatzen omen da. Hori zioten zekitenek (eta asko ziren Lizeagan).

Gero denetik izan zen. Berriketaldi ederrak eta tiki-taka zoragarriak. Hitz joko freskoak eta plaza «ofizialetan» gutxitan entzuten dien arrazoiak, eta irribarreak eta barre algarak (algarak nabarmendu behar genituzke, irribarra ez baiguenen gau osoan galdu).

Bukaeraren bukaera beste norbaitek kontatu (eta kantatu) beharko du. Han utzi nituen nik bat eta bi baino gehiago. Etxekoak ohea harrapatzeko desiatzen, Egañarentzako sukaldetik azkeneko puro txikia ekartzen zuten bitartean. Maletilla eta titular batzuk alde egin ezinean. Zer, bada? Goizeko hirurak baino askoz goizago ere ez zen izango behintzat... ala bai? Ez dakit, hain azkar pasatzen dira, izan ere, irribarrearen ordu txikiak...

Jokatuko nuke Txirritak berak ere majo disfrutatuz zuela kupel gaineko argazkitik.

Gu ere poz-pezik. Illunbeke maletillaren bertso jokoarekin disfrutatuz genuen, eta beste horrenbeste eta gehiago afariarekin. Errepikatu egin beharko dugu, ezta? A, afari ondorengo argazkiak dituenak... tira, ez dakit, etxean gordeta agian hobea...! Eskerrik asko denoi!